



**Agiri honen bidez jakinarazten dizut Xabier Balerdi Tolosa, Tolosako Udaleko zinegotzi delegatuaren 2022ko otsailaren 22ko 2022/0497 Dekretua, hitzez hitz honelaxe dioena:**

Tolosako Udalean, 2022ko otsailaren 21ean, XABIER BALERDI TOLOSA, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Zinegotzi Delegatuak, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2019/1208 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta

### **AURREKARIAK**

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko irakasleak ordezkatzeko Tolosako Udalak lan-poltsa eratzeko oinarriak prestatu ditu, plantilan hutsuneak sortzen direnean hauek bete ahal izateko. Oinarri hauen berri eman zaie langileen ordezkariei; beraz, izapidetza martxan jarriko da, Lanbideri eskatuz gehienez ere 7 egun balioduneko epean lan-eskaintza bat ireki dezan, oinarrietan zerrendatutako baldintzak betetzen dituzten hautagaiek eskabidea aurkeztu dezaten.

### **KONTUAN HARTURIK**

Erdi mailako hautaketa-teknikariak egindako txostena, non oinarriak eta deialdia arautzeko eman behar diren pausoak finkatzen diren.

Horretan guztian oinarrituta, zinegotzi delegatu honek

### **EBATZI DU**

**Lehenik.-** Aitzol Udal Euskaltegiko irakasleen lan-poltsa eratzeko deialdia eta oinarriak onartzea.

**Bigarrenik.-** Ebazpen hau hala Euskara eta Hezkuntzako buruari nola Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendariari jakinaraztea.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren aurka, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari, hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.



TOLOSAKO  
UDALA

Bestela, birjarpen errekurtsoren orde, edo errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

**Agindu eta izenpetzen duena zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2022ko otsailaren 22an.**

Nire aurrean,

Zinegotzi delegatuak	Udal idazkariak
Xabier Balerdi Tolosa	Begoña Garmendia Vazquez

ESKUB01a2f9e-a7d5-469d-bcd9-625aa0baac9e



TOLOSAKO  
UDALA

## **Udal Euskaltegian irakasleen lan-poltsa sortzeko hautaketa-probak: oinarri arautzaileak eta deialdia.**

### **Lehena. Deialdiaren helburua.**

Oinarri hauen helburua da lan-poltsa bat sortzea oposizio-lehiaketa bidez, Euskaltegiko irakasleen ordezkapenak egiteko.

Lanpostuak ezaugarri hauek ditu:

- Eskala: Administrazio Berezia
- Azpieskala: Teknikaria
- Sailkapen-taldea: A2
- Titulazioa: Ingeniari Teknikoa, Unibertsitate diplomatura (edo lizentziaturako lehenengo 3 urteak gaindituak), Arkitekto Teknikoa, LH3 edo baliokidea.
- Hizkuntza-eskakizuna: HAEEko 4. HE, derrigorrezkoa.
- Ordainsariak: A2 taldea; lanpostu-mailako osagarria, 19; Berariazko osagarria, 14.849,80 euro urtean.
- Lan-harremana: laborala

Eguneko lanaldia izango da Tolosako Udalak ezartzen duena, beti ere zerbitzuaren izaera eta beharizan espezifikoak kontuan izanda.

### **Bigarrena. Lanpostuaren eginkizunak.**

Lanpostuak honako eginkizun hauek guztiak izango ditu:

IRAKASLEA:

1. Onarpen-probak diseinatzea, ikasleak prestakuntza-mailen araberako taldeetan sartzeko.
2. Curriculumum HABEren araudiaren arabera prestatzeko lanak egitea, bai eta ikastaroen, jardueren eta zereginen diseinu pedagogikoarekin lotutakoak ere, eta edukiak nola eman planifikatzea eta haiek garatzeko behar den material pedagogikoa prestatu eta/edo hautatzea.
3. Sentsibilizatzeko programak eta jarduerak diseinatzea.



TOLOSAKO  
UDALA

4. Ikasleen bertaratzea ebaluatu eta haren jarraipena egitea, eta behar diren txostenak egitea.
  5. Askotariko bileretan parte hartzea (irakasleen eta ikasleen klaustroa, enpresekin, etab.), eta behar den informazioa ematea ezarritako helburuen ebaluazioa eta jarraipena egiteko, eta egoki iritzitako neurri zuzentzaileak proposatzea.
  6. HABEk A1, A2 eta B1 maileri buruzko irizpideak bateratzeko sustatutako bilkuretan parte hartzea.
  7. Euskaltegiko zuzendaritzarekin eta idazkaritza akademikoarekin batera garatu beharreko jarduera-programak diseinatzea.
  8. Honako zerbitzu hauek diseinatu, proposatu eta garatzea: mediateka, jarduera akademiko gehigarria, kultura-jarduerak eta abar, gainerako irakasleekin elkarlanean.
  9. Proiektu berezien diseinuan laguntzea, eta haiek ezartzeko behar diren materialak sortzea.
  10. HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak ziurtatzeko azterketak diseinatu, prestatu eta zuzentzea, eta dagozkien plataformetan emaitzak sartzea.
  11. Banako eta taldeko txostenak eta memoriak egitea.
  12. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
- EGINKIZUN KOMUNAK:
13. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
  14. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
  15. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.



TOLOSAKO  
UDALA

16. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.

17. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.

18. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, alde zurretik horretarako jarraibideak jasota.

### **Hirugarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.**

Honako baldintza hauek bete beharko dira hautaketa-prozesuan onartua izateko:

a) Nazionalitateari dagokionez, baldintza hauetako bat:

a.— Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea.

b.— Europar Batasuneko estatuetakoz nazionalitatea duen norbaiten ezkontidea izatea, edozein nazionalitate izanda ere, eta betiere zuzenbidez bananduta ez egotea. Halaber, baldintza beretan parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoz nazionalitatea dutenen ondorengoek, baldin eta 21 urte baino gutxiago badute, edo 21 urtetik gorakoak izan arren norbaiten mendekotasuna badute.

c.— Europar Batasunak sinatutako eta espainiar estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den eremuko izatea.

Espainiar estatuan bizi ez diren izangaiek, eskabidearekin batera, dokumentazioa aurkeztu behar dute ailegatzten dituzten baldintzak egiaztatzeko.

b) 16 urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, ez gairiditza nahitaezko erretiroa lortzeko adina.

c) Titulazioa: Ingeniari Teknikoa, Unibertsitate diplomatura (edo lizentziaturako lehenengo 3 urteak gairidituak), Arkitekto Teknikoa, LH3 edo baliokidea den titulazioa edukitzea. Edonola ere, onartuak izango dira HABEK Euskaltegietako irakasleak homologatzeko egin zituen probak gairiditu zituzten irakaslegaiak, 1984ko ekainaren 8ko Aginduan ezarritakoa betez.

d) Laugarren hizkuntza-eskakizuna edukitzea, edo horren baliokidea. Ez da egingo hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketarik prozesuan zehar.



TOLOSAKO  
UDALA

e) Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea, eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea. Baldintza hori dagokion unean egiaztatu beharko du lanpostu batean hastera deitutako izangaiak, azterketa medikua eginda udalak horretarako ezarria duen zerbitzuan.

f) Diziplina-espediente bitartez inongo Administrazio Publikoetako zerbitzutik baztertuta edo kanporatuta ez egotea, eta desgaiuntzarik ez izatea (erabatekoa zein berezia) enplegu edo kargu publikoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, estatu horretan ez edukitzea desgaiuntzarik edo antzeko egoerarik, ezta estatu hartan Funtzio Publikoan jardutea galaraziko liokeen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ere.

g) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun- auziren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera- eskubidea errespetatuko da.

Izangaiak beteta eduki behar dituzte baldintza horiek deialdian onartuak izateko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta lanpostuaz jabetu arte bete beharko dituzte.

Halaber, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen baldintzak, izangai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berarekin hitz egin eta gero, eta hautaketa- prozesura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

### **Laugarrena. Eskabideak.**

Tolosako Udalak Lanbideri eskatuko dio gehienez ere 7 egun balioduneko epean lan-eskaintza bat irekitzeko, oinarri hauetan zerrendatutako baldintzak betetzen dituzten hautagaiek eskabidea Lanbidek gaitutako plataformetan aurkeztu ahal izan dezaten.

### **Bosgarrena. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa betetzea.**

Informazioaren tratamenduak honako hauetan ezarritakoa hartuko du kontuan: datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.



TOLOSAKO  
UDALA

Izangaiek hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-orria aurkezteak berekin dakar baimena ematea aldizkari ofizialetan, iragarki-tauletan, udalaren web-orrian eta hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriak aplikatzeko erabiltzen den beste edozein bidetan argitaratzen diren agiriak identifika ditzaten. Halaber, izangaiek hautaketa-prozesuan zehar aurkeztu behar dituzten agiriak tratatzeko baimena ematea dakar.

Hautaketa-prozesu hau publikotasun-printzipioaren arabera arautzen denez, eskabidea ez da onartuko, baldin eta izangaiek ez badu baimena ematen bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako erabiltzeko.

Bestalde, izangaiek eskabidean adierazi beharko dute ea baimentzen duten beren datuak Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei bidaltzea: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datu horiek legez aurreikusitakoak ez diren eskaintzak izango dira, eta soilik eta eskusiboki jasota geratuko dira.

Izangaiek emandako datuak "Enplegu Eskaintza" izeneko fitxategian sartuko dira. Tolosako Udaleko Giza Baliabideen atala da fitxategi horren organo arduraduna.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte UDATE zerbitzuko bulegoetan edo Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

### **Seigarrena. Hautagaiak onartzea.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzeko, eta zerrenda horiek Tolosako Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira. Erreklamazioetarako eta eskaeretan egindako okerrak konpontzeko, 3 laneguneko epea izango da.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda hori, besterik gabe, behin betiko zerrenda bihurtuko da. Erreklamaziorik egonez gero, ordea, horiek onartu edo baztertuko dira behin betiko zerrendei onespena emango dien beste ebazpen batean, eta zerrendak aurretik adierazitako modu berebean argitaratuko dira.

Era berean, ebazpen horretan bertan agertuko da Epaimahai Kalifikatzaileko kide titular eta ordezkoen izendapena, eta oposizioko lehen proba egiteko lekua, eguna eta ordua.



TOLOSAKO  
UDALA

## Zazpigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.

Proben Epaimahai Kalifikatzaileko kideen izendapena iragarki-taulan eta udal webgunean argitaratuko da. Epaimahaikideei aplikagarriak izango zaizkie Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 23. eta 24. artikuluko abstenitzeko eta errekusatzeko kausak.

Honela osatuko da epaimahaia:

- Lehendakaria: udal idazkaria edo berak izendatutako ordezkoa.
- Mahaiko kideak: Udal Euskaltegiko zuzendaria, idazkari akademikoa edo/eta Udal Euskaltegiko bi irakasle
- Idazkaria: Giza baliabideetako teknikaria edo berak izendatutako ordezkoa.

Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoez jasotzen dituen xedapenetara egokitu beharko du epaimahaiak bere jarduera.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun kideen erdiak baino gehiago etorri ez badira; nolahi ere, Lehendakariak eta Idazkariak bertan egon beharko dute beti. Erabakiak hartzeko, botoen gehiengo beharko da, eta berdinketarik bada, Lehendakariaren botoak erabakiko du.

Lehendakaria (edo haren ordezkoa) bertaratu ez bada, gaixo dagoelako, bere kargua hutsik dagoelako edo tartean beste lege-arrazoiren bat dagoelako, hierarkian maila gorena duen, antzintasun handiena duen edo adinez zaharrena den epaimahaikideak hartuko du haren lekua, esandako hurrenkera horretan.

Idazkari titularraren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixo badago edo titularrari zein ordezkoari eragiten dien legezko bestelako arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiz aukeratzen den kideak beteko du haren kargua.

Epaimahaiak, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipio gidariek bideratuta, erabateko independentziaz, diskrezio teknikoaz eta objektibotasunez jardungo du, eta haren proposamenek organo eskuduna lotuko dute, izendatzeko unean.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, batetik, oinarri hauek aplikatzerakoan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta, bestetik, deialdia behar bezala garatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu; horretarako, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan erabili beharreko irizpideak ezarriko ditu.





TOLOSAKO  
UDALA

Epaimahai Kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, baina horrek ez du esan nahi organo horrek erabakia berrikusi ezin dezakeenik indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusitakoaren arabera.

### **Zortzigarrena. Oposizio-fasea.**

Proba praktiko bat edo gehiago egingo dira, Epaimahaiaren erabakiaren arabera, eta lanpostuaren eginkizunekin lotutakoak izango dira.

Proba hau nahitaezkoa eta baztertzailerak izango da.

Gehienez 40 puntu emango dira, eta gutxienez 20 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

### **Bederatzigarrena. Lehiaketa-fasea.**

Epaimahaiak ondorengo meritua hauek baloratuko ditu, baldin eta izangaiek eskabidean alegatu badituzte oinarri hauetan xedatutakoaren arabera:

1. HABEk ziurtatutako esperientzia irakaskuntzan: 10 puntu gehienez.

a) Euskaltegi publikoetan irakasle-lanetan aritutako 100 eskola-orduak 0,2 puntu.

b) Beste euskaltegi homologatu edo libreetan irakasle lanetan aritutako 100 eskola-orduak 0,1 puntu.

Aurkeztutako dokumentazioan horiek baino ordu kopuru txikiagoak adierazten badira, proportzionalki baloratuko dira.

Bekak eta lanbide-praktikak ez dira kontuan hartuko.

2. Titulu akademikoak: 3 puntu gehienez

a) Euskal Filologiako Gradu edo Lizentzia edo Euskal Ikasketetako Gradu gehi irakaskuntzarako Gaitasun Agiria edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate-Masterra: 2 puntu.

b) Irakasle-ikasketak Euskal Filologian: 2 puntu.



TOLOSAKO  
UDALA

c) Euskal Filologiako Gradua edo Lizentzia edo Euskal Ikasketetako Gradua: 1 puntu.

d) Irakasle-ikasketetako Diplomatura: 1 puntu.

3. Helduei euskara irakastearekin zerikusia duten ikastaroak, HABEK, EHUK, UNEDek, UEUak edo IVAPek emanak.

a) 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: 0,2 puntu.

b) 11tik 50 ordura bitarteko ikastaroak: 0,3 puntu.

c) 50 ordutik gorako ikastaroak: 0,5 puntu.

Ez dira baloratuko titulu akademikoren bat lortzeko ikasketa-plan baten zati diren ikastaroak, eta prestakuntza-ikastaroetako egiaztagiriek horien iraupena zehazten ez badute, ez dira kontuan hartuko.

Aipatutakoez gain ez da beste agiririk edo ikastarorik baloratuko.

### **Hamargarrena. Proben deialdiak eta jakinarazpenak.**

Tolosako Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko dira hala hautaketa-prozesuko probak egiteko deia, nola Epaimahai Kalifikatzailearen komunikazioak eta jakinarazpenak.

### **Hamaikagarrena. Emaizten argitalpena.**

Proba bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren, gutxienez 3 egun balioduneko epea ezarriko da azterketak berrikusteko, eta, ondoren, erreklamazioak egiteko 3 egun balioduneko epea, azterketa berrikusteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio epaimahaiburuari, Herritarren Arretarako Bulegoan (UDATE), edo epaimahaiko idazkariari, ofizialki erregistratu ditzan. Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikoro korrean ere aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko emaitzak behin betikotzat joko dira automatikoki.

Proba guztiak eta lehiaketa-fasea amaitu ondoren, epaimahaiak proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko du, lortutako guztizko puntuazioaren arabera, eta proba bakoitzean lortutako puntuak eta azken puntuazioa adieraziko ditu.



TOLOSAKO  
UDALA

### **Hamabigarrena. Sailkapen-ordena.**

Lortutako puntuazio orokorrak ezarriko du lan-poltsako behin betiko sailkapen-ordena.

Berdinketarik gertatuz gero, honako irizpide hauen arabera ezarriko da ordena:

1. Euskaltegi publikoetan edo homologatuetan irakasle-lanetan izandako esperientzia dela-eta puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.
2. Helduei euskara irakastearekin zerikusi duten ikastaroak direla-eta puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.
3. Oraindik ere berdinketak jarraituko balu, izangairik gazteenaren alde.

### **Hamairugarrena. Dokumentazioa aurkeztea.**

Hautaketa-prozesuan zehar aurkeztu beharrekoak:

Epaimahaiak epe bat irekiko du hautaketa-prozesuan zehar eskabideak aurkezteko fasean alegatutako merezimenduak egiaztatzeko. Ez da beharrezkoa izango Tolosako Udaleko langileen espedientean dauden dokumentuak aurkeztea.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan aurkeztu beharrekoak:

Hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik 10 lan eguneko epean aurkeztu beharko dira prozeduran parte hartzeko hirugarren Oinarrian adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko arrazoiak salbu, zerrendako izangaietakoren batek ez badu aurkezten agiririk edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, ezingo zaio izendatu, berak egindako guztia baliorik gabe geratuko da eta izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu. Nolanahi ere faltsukeriagatik izan lezakeen erantzukizunari aurre egin beharko dio.

### **Hamalargarrena. Deialdiaren inpugnazioa.**

Interesdunek inpugnatu egin ditzakete deialdia, haren oinarriak eta haien ondoriozko eta epaimahaiaren jardunbidearen ondoriozko ekintza



TOLOSAKO  
UDALA

administratiboak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen  
39/2015 Legeak, urriak 1ekoa, dioen kasuetan eta moduan.

Tolosan, 2022ko otsailaren 24ean

Idazkaria,

Begoña Garmendia Vazquez

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - Helbide elek.: [udate@tolosa.eus](mailto:udate@tolosa.eus)  
[www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU01a2f9e-a7d5-469d-bcd9-625aa0baac9e**

*Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022PDLP0001-Jakinarazpena/Notificación (ZUBITUR IÑARRA IZASKUN)